

**ERABAKIA, 2017ko ABENDUAREN 15ekoa, UPV/EHUko GERENTEARENA, INFORMAZIO
ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZAN UNIBERTSITATE HONETAKO
LAN KONTRATUDUNEN III. TALDEKO PROGRAMATZAILE LANPOSTU BAT BETETZEKO
2017ko URRIAREN 6ko ERABAKIAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA EBAZTEKO DENA**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2017ko urriaren 6an jarraian zehaztutako lanpostua eginkizunen esleipenaren bidez aldi baterako betetzeko deialdia argitaratu zen: L 208 lanpostua (lanpostuaren izena: programatzailea; kategoria profesionala: IKTko teknikari espezialista; sailkapen taldea: III; dotazioa: 2; maila: 20; hizkuntza eskakizuna: 2. HE, 2002/12/31ko derrigortasun datarekin; lanpostuaren kokapena: IKTen Gerenteordetza, Leioako Campusa).

Bigarrena.- Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendan, 2017ko urriaren 31koan, ez zen ageri deialdian parte hartzeko eskaerarik egin zuen lan kontratadun finkorik, bai ordea aldi baterako lan kontratadun langilerik.

Hirugarrena.- Egun unibertsitateak epai bat bete beharra dauka, UPV/EHUri agidua ematen diona lan kontratu mugagabea daukan pertsona bati plaza huts bat esleitzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.-UPV/EHUko gerenteak eskuordetuta dauka erabaki hau emateko eskumena, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2017ko otsailaren 3ko EHAAn argitaratua).

Bigarrena.- Lan kontratadunen III. Hitzarmen Kolektiboak 20. 3 artikuluan ezarritakoarekin bat, lanpostu bat titularrik gabe hutsik badago edo sortu berria bada, lanpostu hori eginkizunen esleipenaren bitartez betetzeko deia egingo da, berori behin betiko betetzeko hitzarmen honen 15. eta 16. artikuluetan ezarritakoa betetzeari utzi gabe. Gainera, artikulua beraren 4. atalak ezarritakoaren arabera, prozedura espezifiko bat ezarri behar da eginkizunen esleipenerako, eta prozedura hori funtzionarioen kasuan zerbitzu betekizunetarako ezarritakoaren antzekoa izan behar da.

Hirugarrena.- Eginkizunen esleipenei buruzko 2013ko uztailaren 4ko Akordioak ezarritakoarekin bat, prozedura horretan parte hartzeko UPV/EHUko lan kontratadun langile finkoa izan behar da, baina UPV/EHUko aldi baterako lan kontratadun langileek ere deialdi horietan parte hartu ahal izango dute, nahiz eta eginkizunen esleipenerako lan kontratadun langile finkorik egon ezean baino ez dituzten aukeratuko. Bestalde, arau berarekin bat, lan kontratadun langile finkorik ez badago eginkizunak esleituta hartzeko, prozesuan parte hartu duten aldi baterako lan kontratadun langileen zerrenda argitaratuko da.

Laugarrena.- Gerentearen 2014ko uztailaren 14ko Erabakiaren bidez, ebatzi zen betetzea Bilboko Lan Arloko 3. Epaitegiak 2014ko apirilaren 7an emandako epaia, José M^a Recuero García jaunari lan harreman mugagabea aitortzeari buruzkoa, era honetara: «el interesado continuará en el desempeño de las funciones propias del puesto de trabajo de Programador, con la categoría profesional de Técnico Especialista TICs, especialidad Informática de Aplicaciones, dentro del grupo de clasificación III del vigente III Convenio Colectivo del Personal Laboral de Administración y servicios de la UPV/EHU, percibiendo las retribuciones correspondientes al nivel 20 asignadas al mencionado puesto de trabajo, inicialmente sin dotación concreta de referencia, y ello en tanto se produzca vacante del mencionado puesto».

en las vigentes relaciones de puestos de trabajo, momento en que se formalizará al interesado un contrato laboral de interinidad para la cobertura de la misma hasta su provisión reglamentaria».

Espainiako Konstituzioak honako hau dio 118. artikuluan epaiak betetzeari buruz: «Nahitaezkoa da epaile eta auzitegien epai eta bestelako ebazpen irmoak betetzea, eta, prozesuan zehar eta ebatzirikoa betearaztean, haiek laguntza eskatzen badute, laguntza hori ematea ere nahitaezko gertatzen da».

Ildo beretik doa Botere Judizialaren Lege Organikoa, 17. artikuluan: «1. Todas las personas y entidades públicas y privadas están obligadas a prestar, en la forma que la ley establezca, la colaboración requerida por los Jueces y Tribunales en el curso del proceso y en la ejecución de lo resuelto, con las excepciones que establezcan la Constitución y las leyes, y sin perjuicio del resarcimiento de los gastos y del abono de las remuneraciones debidas que procedan conforme a la ley.

2. Las Administraciones Públicas, las autoridades y funcionarios, las corporaciones y todas las entidades públicas y privadas, y los particulares, respetarán y, en su caso, cumplirán las sentencias y las demás resoluciones judiciales que hayan ganado firmeza o sean ejecutables de acuerdo con las leyes».

Eta 18.2 artikuluan: «Las sentencias se ejecutarán en sus propios términos».

Ildo beretik doa, halaber, Lan arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 241. artikulua, babes betearazleari buruzkoa: «1. La ejecución se llevará a efecto en los propios términos establecidos en el título que se ejecuta».

Bosgarrena.- Kasu honetan ezinbestekoa da egiaztatzea zein den gailendu beharreko neurria lehen aipatutako epaia bete behar izatearen eta eginkizunen esleipenerako deialdietan ezarritakoa zorrotz betetzearen artean sortzen den interes gatazkan, deialdiotan aldi baterako langileek parte hartu eta eginkizunak langile horiei esleitu ahal izateari dagokionez.

Garrantzitsua da nabarmentzea eginkizunen esleipena oinarrian lan kontratudun finkoei zuzenduta dagoela, eta deitutako lanpostuetara lan kontratudun finkorik aurkezten ez denean, eta kasu horretan bakarrik, zuzentzen zaiela aldi baterako lan kontratudunei. Ildo horretatik, geratu den lanpostu hutsa zuzenean epaia betetzeko erabili aurretik, eginkizunen esleipenerako deialdian lanpostu huts hori betetzeko interesa izan dezakeen eta eskubide hobea duen lan kontratudun finkorik dagoen egiaztatu behar da, eta halako langileen eskaerarik egon ezean, lehentasuna eman behar zaio epaia behar bezala betetzeari, deialdian parte hartu duten aldi baterako langileek izan dezaketen eskubide igurikimenaren gaineratik. Horrela, bada, L 208 lanpostua (programatzailea) hutsik geratu denez Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetzan, eta ez dagoenez lanpostu hori betetzeko interesik duen lan kontratudun langile finkorik, lanpostu huts hori erabili behar da goian aipatutako epaia betetzeko.

Bosgarrena.- Gerentearen 2014ko uztailaren 14ko Erabakian ezarritakoak ezinezko egiten du L 208 lanpostuaren deialdiarekin aurrera egitea, lanpostu hori eginkizunen esleipenaren bidez aldi baterako bete nahi duen lan kontratudun langile finkorik ez dagoela egiaztatu ondoren.

Aintzat hartuta orain arte adierazitako guztia eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 84. 2 artikulua dioena: «prozedura amaitu egingo da, halaber, jarraitzea materialki ezinezkoa bada gerora sortutako arrazoiengatik»; eta eman zaizkion ahalmenak erabilia, gerenteak honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hutsik uztea L 208 lanpostua, 2017ko urriaren 6ko Erabakiaren bidez egindako deialdian eginkizunen esleipenaren bidez betetzekoa zena, lanpostu hori betetzeko lan kontratudun langile finkorik ez dagoelako, eta lanpostu hori gordetzea zuzenbideko hirugarren oinarrian aipatutako epaia betetzeko.

Bigarrena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioa, 2017ko abenduaren 15a

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia (2017ko otsailaren 3ko EHAA)

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché

